

kritiken hemeroteka

4302 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

→ **Izendaeziaz**
Tere Irastortza
Bixente Serrano Izko

→ **Haginetako mina**
Askoren artean
Beñat Sarasola

→ **Lehen bilduma 82-84**
Mikel Antza
Gorka Bereziartua

→ **Zinea eta literatura**
Harkaitz Cano
Ion Olano

→ **Abaraska**
Asel Luzarraga
M. Egimendi

→ **Zinea eta literatura**
Harkaitz Cano
Mikel Ayerbe

→ **Ilargi-harria**
Wilkie Collins
Javier Rojo

→ **La lutte finale**
Joxean Agirre
Iratxe Esnaola

→ **Eguntsentiarren esku izoztuak**
Xabier Lete
Beñat Sarasola

→ **Gau ilunekoak**
Joseba Sarrionandia
Bixente Serrano Izko

→ **Bilbao-New York-Bilbao**
Kirmen Urbie
Ana Arregi

→ **Zinea eta literatura**
Harkaitz Cano
Felipe Juaristi

→ **Istripuak**
Agustin Arrieta Urtizberea
Mikel Ayerbe

→ **Hizunigu**
Mikel Zarate
Javier Rojo

« Zalearen alea |

Haginetako mina / Askoren artean / Txalaparta, 2008

Antologiak eta desorekak → Beñat Sarasola / *Berria*, 2008-01-11

Azken urteotan egon den euskal gatazkaren presentzia gure literaturan aztertzeko jakin-mina ondoren, pentsatzekoa zen lehenago edo geroago gai honen inguruko antologia bat publikatzea. Euskal gatazka eta euskal literaturaren arteko analisi hauetan, gainera, protagonismo handi samarra hartu du ipuinaren generoak eztabaidagai gisa. Jokin Muñozen ideia hori, ipuinak posizionamendu ideologiko argi bat hartzea saihesten laguntzen duelakoa, eta Iban Zalduaren erantzuna (*Lau kontsiderazio euskal ipuingintzaren inguruan*) horren adibideetako bat da. Mikel Sotok apailatu eta Txalapartak atera berri duen *Haginetako mina* hau, bada, euskal literaturan gatazka jorratzen duten ipuinen antologia da ("Ipuinak hautatzeko irizpide nagusia izan da lanen gai zentralietako bat konbentzionalki euskal gatazka deitzen dugun hori izatea" dio hitzaurrean), eta hala, eztabaida hauek sakontzeko eta ikerketa lan berriak egiteko erreferentzia interesgarria da.

Ipuinak kronologikoki ordenatuak ditu Sotok, argitaratze dataren arabera. Anjel Lertxundiren "Hausturak" etik, 1984an argitaratutakoa, Joseba Sarrionandiaren "Xakea" arte, 2007an plazaratua, nahiz eta, ironikoki-edo, 1982an idatzia izan zen. Euskal Gatazka delakoaren zerizan patetikoaren inguruan dezente esaten du datu honek. 1982an idatzitako ipuina ez da batere gaizki zahartu eta hogeita bost urte beranduago argitaratu daiteke arazorik gabe.

Askotarikoak dira ipuinoi luzera, estrategia narratiboak, tonuak eta abarrekoak, eta Sotok, oro har, aurrerago zehatzuko titudan eragozpenak salbu, liburu aberatsa ondu duela esango nuke. Esate baterako, hor dago narrazioaren teknikaren ikuspegitik paregabea den Mikel Antzaren "Odolaren usaina", euskal gatazka beste gatazka sozialekin (drogekin) lotzen duen Edorta Jimenezen "Atoiontzia", eta zolitasunez beteriko Luis Fernandezen ipuin satiriko bikain hori, "Kontaktua", atentzio gehien eman didatenean artean hiru hautatzearren. Bestetik, ipuin batzuek gatazkaz mintzo garenean eskuarki ahanzi egiten ditugun zenbait aspektu eta biktima gogorarazten dizkigute. Ipuin hauetako protagonistak ez dira ez heroiak ezta martirrak ere. Horietako bat da Xabier Montoiaren Irapuato. "Makurkeria nonahi", iheslarien (zentzurik literalenean) errealtatea mahai gainera eramaten diguna; eta beste bat Jokin Muñozen "Isiluneak", ETako militanteen sentitarrak oinazea azaleratzen duena (eta bidenabar, 1974ko Gabriel Arestiren "Joseba Mendizabal Zaldibian" poema gogorarazi).

Baina antologiaren aberastasunari dagokion eragozpenen bat agindu dut gorago, eta iritsi da nire zorra kitatzeko garaia: ipuin (ia) guztiek, ezker abertzaleko biktimen oinazean jartzten dute beren arreta. Min hau, arestian aipatu bezala, prisma askotatik agertzen da, eta horixe da, nire iritziz, antologia honen bertuteetako bat. Baina ETaren bortizkeriak eragindako oinazea esplizituki azaltzen diren ipuin bakarrak Patxi Zubizarretaren "Bihar ez diot amari hutsik egingo" eta Harkaitz Canoren *Hipotetsiak gordinkeriaz* dira. Bai, idiota samarra da kalkulu matematikoak egiten ibiltzea politikoki zuzena litzatekeen oreka ezinezko bat mantentzearen, baina uste dut "euskal gatazka" erabili ondoren, termino honen esanahi distantziakidearen taminako antologia distantziakidea espero zitekeela, borroka armatuak eragindako minaren presentzia handiagoarekin. Hitzaurrean Sotok dion bezala, antologia inpartzialak egiteko posibilitatearen inguruko ameskeriak aspaldi joan zitzaizkigun (areago halako gai baten aurrean), baina kasu honetan desoreka handiegia dela begitandu zait niri.

Artxiboa

→ Urtarrila 2009

→ Abendua 2008

→ Azaroa 2008

→ Urria 2008

→ Iraila 2008

→ Abuztua 2008

→ Uztaila 2008

→ Ekaina 2008

→ Maiatza 2008

→ Apirila 2008

→ Martxoa 2008

→ Otsaila 2008

Aurreko urteak ↕

Hedabideak

→ Argia (553)

→ El Diario Vasco (535)

→ Egunkaria (503)

→ El Correo (500)

→ Berria (325)

→ Gara (294)

→ Deia (185)

→ El País (150)

→ Zeruko Argia (97)

→ Irunero (87)

→ Aizu! (65)

→ Hegats (62)

→ Besterik (946)